

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO LANKIDETZAZ PRESTATZEKO LAGUNTZA DEIALDIA 2019



ATARIKOA

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerkuntza gunerik handiena izaki, eskuordetuta du unibertsitateko pertsonal titulatuak ikerkuntzan prestatzeko eginkizuna eta, hori dela eta, doktorego tesien laborazioa sustatzen du; horrexetarako, pertsonal ikertzaileen prestakuntza helburu duen honako laguntza-deialdi hau argitaratzen duelarik.

Gaur egungo gizartean, doktoreak ezinbestekoak dira ekoizpen sarean eta gizartean. Unibertsitateak doktoreak hezi behar ditu eta ahaleginak egin behar du prestakuntza hori, jakintzan eta berrikuntzan aurrera doan gizarteari egoki dakion, gizartean bertan emakume eta gizonen jakintza, batzuen eta besteen eskubide, erantzukizun eta aukeren berdintasunean txertatuz. Doktoregoko ikasketek, karrera akademiko bat egiteko prestatzeaz gain, enpresa, erakunde eta instituzio berritzaileetan langile gaituak sartzeko aukera ematen dute.

Deialdi honen helburua doktoreak prestatzea da UPV/EHUren doktorego programen bidez eta ekoizpen eta gizarte ingurunearekiko lankidetzaz, zientzia arloa zeinahi delarik. Finantzaketa Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ematen du, 150.000 eurotako zenbatekoaz, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu programaren barruan esleitutako finantzaketarako ezarritako aurrekontu kredituari dagozkionak, "Doktorego tesiak sustatzea, erakunde eta enpresekiko lankidetzaz" deritzon ekintzari eskainita. Finantzaketa honen bidez kontratuaren kostuaren atal bat estaliko da, doktorego tesiaren garapena jasoko duen erakunde laguntzaileak bere gain hartu beharko duelarik.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdiaren xedea da unibertsitateko tituludunak UPV/EHUren doktorego programetan prestatzea ekoizpen eta gizarte ingurunearekiko lankidetzaz, doktorego aurreko kontratuaren bidez, prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileen estatutua, aurrerantzean PDAIE, (2019ko martxoaren 15eko EBO) onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 errege dekretua oinarri harturik, edo une bakoitzean erakunde motari dagokion indarreko lan legeriaren arabera, zentzia arloa edozein dela.

Lankidetzaz zehaztuko da enpresa edo gizarte entitateek (aurrerantzean entitateak) deialdi honetako hautagaitzei eta ikerketa proiektuei emandako babesean, non gauzatuko baitira haututako ikertzaileek deialdi honen bidez egingo dituzten doktorego tesien proiektuak, hauetarako kontratuan entitatean sinatuko direlarik.

Doktorego tesirako ikerketa proiektuaren garapena proposatzen edo bermatzen duen erakundearen instalazioetan garatuko da doktorego tesiaren ikerketa proiektua, bai eta UPV/EHUren instalazioetan ere.

Zehazkiago esanda, ikertzaileak ekoizpen eta gizarte ingurunearekiko lankidetzaz prestatzeko programa bat ezarri nahi da helburu hauetarako:

1. Gradudun doktoreen kopurua apurka gehitzea.
2. Eremu guztietako I+G+Drako gaitasuna gehitzea, jakintzaren transferentzia sustatuz.
3. Lanpostu kualifikatuak sortzen laguntzea, enpresa eta gizartearen eremuan.
4. Doktore gradua duten pertsonen enplegarritasuna gehitzea enpresaren arloan.
5. Doktoreen figura gizartean duen balioespena hobetzea, ekoizpen eta gizarte ingurunean gauzatu beharreko berrikuntza prozesuetarako funtsezko elementu gisa.
6. Unibertsitatearen eta ekoizpen arlo eta gizartearen arteko harremanak sendotu eta estutzea.

2. oinarria. ENTITATEEN BETEBEHARRAK

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte parte hartuko duten entitateek:

- a) Nortasun juridikoa izan.
- b) Gizarte egoitza Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan izan.
- c) Egunean egun, betebeharrak fiskalen betetzean.

- d) Enpresa industrial edo Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarean integratutako eragile behar du izan, ikerketa proiektua enpresa industrial baten lankidetzaz garatzen duena.
- e) UPV/EHUK egindako zerbitzu, lan edo hornidurei legokiokeen fakturarik ordaintzeke ez izan, deialdi honen indarraldiaren hasierako datatik hasi eta 90 egun natural iragan baino beranduagoa ez bada.

Ez da mugarik jartzen entitatearen tamainari dagokionean.

3. oinarria. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

3.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskaria aurkezten denean**.

3.1.1. Honako baldintza hauetakoren bat bete:

- i. **Doktoregora sartzeko bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina lortuta, data hori barne**. Salbuespenez, titulazioa lehenagoko data batean lortu izana izan ahalko da, proposatutako ikerketa proiektuaren gaiari loturiko lan ibilbidea edo ikerketa jarduna egiaztatzen bada. IGBBK balioetsiko ditu baldintzok baldintza hau bete den edo ez ebazteko.
- ii. **Doktoregora bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, berori 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, egun hori ere barne**, lortua izanik eta egiaztatu 2013ko urtarrilaren 1aren eta 2015eko abenduaren 31aren artean, biak barne, hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izana.
- iii. Unibertsitate tituludunen kasuan, osasun prestakuntza espezializaturako plazak lortzera bideratutako prestakuntza plaza lortua badute, osasun zientzien espezialitateetako titulu ofiziala lortzera bideratutako prestakuntza programa batean, gutxien dela, bi urte balorazio positiboaz gainditu badute eta bi prestakuntza urte horien amaiera 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina bada, data hori ere barne.
- iv. **Doktoregora sarbidea ematen duen titulu baten azken ikastaroan aritzea**. Pertsona hauek epe gehigarri bat izango dute **2019ko urriaren 31ra arte, egun hori barne**, espediente akademiko osoa aurkeztuko badute. Espedientea deialdi honen 7. oinarrian deskribatutako edozein bitarteko erabilia aurkeztuko ahal da. Aurkeztu ezean, hautagaiok hautaketa prozesutik at geratuko dira.

Doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 errege dekretuak 6. artikuluan zehazten ditu doktorego programak bete behar dituen baldintzak, hots:

1. Oro har, doktorego programa ofizial batera sartu ahal izateko, gradu edo pareko ikasketen titulu ofizialaren eta unibertsitate master edo pareko titulu ofizialaren jabe izan behar da, betiere, bi ikasketa horietan, guztira, gutxien dela 300 ECTS gaindituta badituzu.

2. Programan sar daitezke, era berean, kasu hauetako batean daudenak:

- a) Espainiako unibertsitate titulu ofizial baten jabe izatea, edo Europako Goi Hezkuntzaren Eremuko beste herri batekoa, baldin eta, urriaren 29ko 1393/2007 EDko 16. artikulua ezarritakoarekin bat etorrira, masterrean parte hartzeko gaitzen badu. Eta gaindituak izatea, gutxienez, 300 kreditu ECTS, unibertsitate titulu ofizial guztiak kontuan hartuta, eta horietatik 60, gutxienez, master mailakoak izango dira.
- b) Espainiako gradudun titulu ofizial bat izatea, eta haren iraupena, zuzenbide komunitarioko arauak betez, 300 kreditu ECTSkoa izatea, gutxienez.

Datei dagokienean, aintzat hartuko da doktoregorako sarbidea ematen duen lehenengo titulazioa noiz lortu den.

3.1.2. Doktore tituluaren jabe ez izatea.

3.2. Eskatzaileek baldintza guztiak beteta izan beharko dituzte **kontratua sinatzerakoan**:

3.2.1. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek **Espanian lan egiteko administrazio baimena** aurkeztu beharko dute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoan ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak emandako idazketan.

3.2.2. Eskarian adierazitako UPV/EHuren doktorego programan matrikulatuta eta eskarian adierazitako tesi zuzendarikideekin egotea, laguntza emateko erabaki behin betikoa argitaratzerakoan. Honela egiaztatu ezean, laguntza ezesteko arrazoi izan daiteke. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, doktorego eskolak horretarako adierazitako epean eta forman.

4. oinarria. TESI ZUZENDARI KIDEEN BALDINTZAK

4.1. Eskariek nahitaez izango dute UPV/EHUko zuzendarikide bat eta beste zuzendarikideak entitatekoa beharko du izan. Gutxien dela, tesiko zuzendarikideetako batek **UPV/EHuren doktorego programako irakasle behar** du izan eskaria aurkezterakoan. Lehengo baldintza beteko ez lukeen tesi zuzendarikidea halakotzat onartuko beharko du UPV/EHuren barruan legokiokeen batzordeak. Tramite honi laguntza ematerakoan ekin ahal izango zaio.

4.2. Eskatzaileek egiaztatu ahal izango dute proposatutako zuzendari-kideak beraiek hautatutako doktorego programan ari diren honako esteka honetan:

<http://www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

4.3. Eskaria egiterakoan programako irakasle ez den zuzendarikideak ere, bere aldetik, legokiokeen batzordeak onartua beharko du izan. IAEk ofizioaz gainbegiratuko du baldintza honen betetzen den eta, ezezkoan, laguntza bertan behera utzi ahal izango da. Tramite hau egiteko jarraibideak esteka honetan kontsulta daitezke:

<https://www.ehu.es/eu/web/ordenacion.academica/programatik-kanpoko-irakasleen-tesi-zuzendarikidetza>

4.4. **Tesi zuzendariak ezin emango dio abala eman deialdi honetan eskari bati baino gehiagori.** Baldintza hau antzemanik, eskatzaileari, alegazioak emateko epearen barruan, 10 lanegunen epea emango zaio tesi zuzendari berri bat proposa dezan, deialdian eskaturiko baldintza guztiak eskaria egiterakoan beteko dituen zuzendaria. Eskatzaileak lehengo tesi zuzendari-kidea agertuko luketen dokumentu guztiak eguneratu eta aurkeztu beharko ditu, behin betiko zuzendari-kidearen datuak jasota. Baldintzak betetzen ez dituen bigarren tesi zuzendarikidea proposatuz gero, ezin izango da zuzendu, eskaria baztertzeko zioa izanik.

4.5. Gutxien dela, tesi zuzendarikide batek izan beharko du UPV/EHUREKIKO enplegu lotura deialdian parte hartzeko eskaria aurkeztu ahal izateko azken egunean eta lan loturak doktorego tesia lortu arteko iraupena izango du gutxienez.

4.6. Eskatutako baldintza guztiak betetzen ez dituzten edo legezko epean eta eran egiaztatzen ez dituzten zuzendarikideen eskariak hautaketa prozesutik at geratuko dira.

5. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK

5.1. Zortzi dira aurreikusi diren laguntzen kopurua eta aldatu ahal izango da emateko erabakian, aurrekontu baliabideen arabera.

5.2. Eskainitako lan kontratua PDAIEK arteztuko du. Kontratututako langileak prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileak hartzen dira, entitateari lotuak.

Laguntza emango duen erakundeak formalizatuko dituen kontratuak PBAIEn oinarrituta ezin arautuko balira, Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 legearen 20.0 artikuluan eta xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioz, hautatutako pertsona kontratatze erabili beharko den kontratu modalitatea unean une indarrean egongo den espainiar lan legeriari jarraiki definituko da.

5.3. Hautatutakoa entitatean arituko da, doktorego tesirako ikerketa proiektua bertan eginez.

5.4. Kontratua arduraldi osokoa izango da.

5.5. Eskaera bermatzen duen Erakundeak deialdian hautatuko pertsonarekin kontratu-lotura mantentzeko konpromisoa hartuko du azken hau eskabideak aipatutako doktorego programan matrikulatuta mantentzen den bitartean, eta edozein kasutan, lau urtez gehienez kontratu sinatu zen egunetik zenbatuta.

6. oinarria. ESKARIEN EDUKIA

6.1. Eskariak IAEren webgunean eskura daitezkeen eredu arautuetan bete behar dira:

<https://www.ehu.es/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-doktoratu-aurreko-laguntzak>

Eskaria egiteko inprimakia **paperezko euskarrian** eta PDF gisa aurkeztu beharko da, eskuz idatzitako jatorrizko sinadurekin edo ziurtagiri elektronikoaren bidez sinadura digitalekin. Eskaria egiteko formularioa **eskariaren zati eta ataltzat hartuko da, eskariaren gutxieneko edukia izanik**. Epearen barruan eta formaz aurkeztu ezean, bazterrean utzi ahal izango da eskaria, zuzentzeko epean gehitu edo aldatu ahal izateko aukerarik gabe.

6.2. Era berean, honako dokumentu hauek ere gehitu beharko dira CD, DVD edo pendrive batean **PDF formatuan**:

- a. **NAN, atzerritarren identifikazio zenbaki edo pasaportearen fotokopia.**
- b. **Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako akademi ziurtagiri pertsonala, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren.** Ziurtagiriak agertu behar du eginiko irakasgai eta kreditu guztiek osatzen dutela titulazio osoa. Kasuan kasuko ikasketak UPV/EHU n egin dituzten eskatzaileek ez dute dokumentu hau agertu beharrik.
- c. 3.1.1.ii edo iii. oinarrietako adierazitako salbuespenetako bat alegatuko luketen eskatzaileek, aurrekoaz gain eta norberaren kasua zein den, **espezialitateko tituluaren kopia edo beronen ziurtagiri ofiziala** agertu beharko dute edo hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izanarena (**familia liburuaren fotokopia**). Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera atzerrian egindako unibertsitate titulazioen batez besteko **nota baliokidearen ziurtagiria** aurkeztu beharko da, **Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) emana**. Agiri hau ondoko esteka honen bidez eskura daiteke:

<https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/203615/ficha.html>

- d. **Eskatzaileen Curriculum Vitae.** Dokumentu hau ingelesez aurkeztuko da Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitaterako ministerioaren ohiko formatuan. Txantiloia IAE-ren webgunetik jaitsi ahal da. Hizkuntzen jakite maila (euskara, ingelesa...) egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- e. **Europar Batasuneko hiritarrik ez diren eskatzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimena aurkeztu beharko dute, eskaria ebatzi eta, beranduen, hiru hilabetetara, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoan ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak emandako idazketan.**
- f. **Kanpoko entitate batek hautagaia kontratatuko duelako ziurtagiria, doktorego tesirako ikerketa proiektua bertan egingo duelarik.**

Atal honetan eskaturiko dokumentazioa besterik ez da ebaluatuko. Hortaz, ez da eskatutakoaz besteko dokumentazioa aurkeztuko, ez baita inola ere aintzat hartuko.

6.3. Eskatzaileek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal dute eskaria, CV izan ezik, berorrek ingelesez egon beharko baitu ezinbestean.

7. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

7.1. Eskaerak behar bezala aurkeztutzat joko da baldin eta eskaria bera paperean nola dokumentazioa PDF formatuan UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidali bazaio, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan dauden erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUren idazkaritza nagusiaren webgunean zerrendatutako bulegoetako batean aurkeztuta; nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikulua arabera ere aurkez daitezke.

Halaber, aipatutako 39/2015 legeak ezarri bezala, eskarik edozein posta bulegotan ere erregistratuko ahal dira. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria zigilatuko badu. Ondoren, posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Ikerketako Deialdien Atala
Errektoregoaren Eraikina
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa (Bizkaia)

Posta bulegoetan aurkeztutako eskarietan, argi jaso beharko da bulegoaren izena eta zer datatan eta tokitan aurkeztu zen. Honez gain, interesatuak egun berean jakinarazi beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordetzaren gestio zuzendaritzari posta elektronikokoaren bidez eskaria igorri dela.

Fase honetan, **inprimakia osorik beteta ez aurkeztea, sinadura originalak barne direla, arrazoa izango da hautaketa prozesutik at uzteko.**

8. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskariak aurkezteko epeak 45 egun natural izango ditu, honako deialdi hau Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzaren web gunean argitaratuko denetik kontatzen hasita.

9. oinarria. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

9.1. Deialdiaren esleitzeko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1. Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	40 puntu
2. Ikerketa proiektuaren interes eta kalitatea zientifikoa	30 puntu
3. Eskatzailearen esperientzia eta curriculum	10 puntu
4. UPV/EHUko zuzendarikidearen esperientzia, doktorego tesien zuzentzerakoan (c)	10 puntu
5. Kanpoko entitateko zuzendarikideak tesi zuzendaritzan duen esperientzia (c)	10 puntu
GUZTIRA	100 puntu

(a) Oharra: Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (balorazio irizpideen lehenengo atala) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan UPV/EHUUn titulazio hori egin duten ikasleen batez besteko notak erabiliz.

Eskaerako titulazioa ez badago UPV/EHUUn, edo titulazio horri dagozkion batez besteko noten kopurua ez bada adierazgarria, aurreko ikasturteetan UPV/EHUko titulazioetan lortu diren batez besteko notak erabiliko dira normalizaziorako.

NORMALIZAZIORAKO ERABILITAKO FORMULAK:

Eskatzailearen_NK: eskatzailearen espediente akademikoaren normalizazio koefizientea.

Eskatzailearen_BatezBestekoa: Eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

Titulazioaren_BatezBestekoa: Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen batezbestekoa.

Gutx_NK: Titulazio guztietarako gutxieneko normalizazio koefizientea.

Geh_NK: Titulazio guztietarako gehieneko normalizazio koefizientea.

Titulazioko_DesbEstand: Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako noten desbideratze estandarra.

Eskatzailearen_NotaNormalizatua: 9.1, 9.2 eta 9.3 oinarrietan ezarri diren gainerako irizpideetan jasotako puntuazioei gehitutako normalizazioaren ondoriozko emaitza, puntuazio orokorra lortzeko (bi hamartarretan biribildua).

NK_eskatzailea =

$$\frac{(\text{Eskatzailearen_NK} \times 10) - (\text{Titulazioaren_BatezBestekoa} \times 10)}{\text{Titulazioko_DesbEstand}}$$

Eskatzailearen_NotaNormalizatua =

$$40 \times \frac{(\text{Eskatzailearen_NK}) - (\text{Gutx_NK})}{(\text{Geh_NK}) - (\text{Gutx_NK})}$$

Ondoren, titulazio bakoitzeko normalizatutako puntuazio guztiak zerrenda bakar batean bilduko dira, handienetik txikienera ordenatuta.

Titulazio bat baino gehiago egin badituzte, 3.1.1 oinarrian ezarritako denbora baldintza betetzen duena edo proposatzen den ikerketa proiektuaren gaiarekin erlaziorik estuena duena erabiliko da normalizaziorako.

(b) Oharra: Espainiako unibertsitate sistematik at lortutako espedienteen kasuan, aipatutako 1. irizpidean Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, baldin eta baliokidetza hori beharrezkoa bada lehiaketa prozesu batean aurkeztu ahal izateko.

ANECAn igorritako egiaztagiria deialdiaren 6. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera erantsi beharko da.

Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 1. irizpideari dagokionean 10 puntu esleituko dira.

(c) Oharra: Bi puntu emango dira zuzendutako tesi bakoitzarengatik eta puntu bat zuzendarikide gisa zuzendutako tesi bakoitzarengatik.

10. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestioiko Zuzendaritzak aztertu egin zituen aurkeztutako eskaerak. Azterketa hau amaitu eta gero, IAE-k bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskarien zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak. Tramite hau egiteko, hilabeteko epea izango du, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero kontaktzen hasita.

Okerren zuzenketa

Eskariak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez balitz edo zuzen litezkeen erroreak edukiko balitu, IAE-k eskatuko dio eskatzaileari hamar egunen epean osatu eta zuzen dezan.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskariak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Okerren zuzenketa aurkeztu beharko dira 7. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilia.

Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda.

Agertutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzizat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskariak. Behin betiko zerrenda hamar lanegunen epean argitaratuko da okertzeko epea amaitu eta gero kontaktzen hasita.

Ebaluazio fasea

Bederatzigarren oinarrian deskribatutako 2 eta 3. balioesteko irizpideen balioespena kanpoko agentzia baten bidez egingo da edo deialdi honetarako osatuko litzatekeen ebaluatzaileen panel batek. Tramite hau bi hilabetetan luzatuko da.

Ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Eskatzailearen batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. espediente akademikoaren batez besteko nota haztaturik altuena lukeen eskaria lehenetsiko da (1. irizpidea).
- b. Lehenetsi egingo da 2. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.

Behin-behineko ebazpena

IGBB-k behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAE-ren webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiek eskariaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez.

Interesdunek 10 egun baliodunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatu epean alegazio espresurik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

Behin betiko erabakia

Epea hau iraganik, IAE-k aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBB-ri, bertan azter daitezten eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Oneste zein ezesteko behin betiko erabakia IAEren webgunean argitaratuko da eta banakako ebazpena bidaliko zaie eskatzaileei.

Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

11. oinarria. LAGUNTZAK ENTITATE LAGUNTZAILEEI ESLEITZEA

11.1. Hautatutako pertsonak agertu beharko dute hautatuak izateko alegatutako baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Dokumentazio hau agertzeko epea eman eta ezetsitako eskarien behin-behineko ebazpenean adieraziko da.

Hautatutakoek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAE-n, gehien dela 30 egunen epean:

- a. Doktorego programetako matrikularen gordekina.
- b. Deialdi honen hautatutako pertsona gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendarikideek ontzat emana.
- c. Deialdian hautatutako pertsonaren eta entitatearen artean sinatutako kontratuaren kopia.
- d. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da entitateak diru-laguntzari uko egiten diola.

11.2. Behin dokumentazioa egiaztatuta, UPV/EHUK hitzarmen bat sinatuko du entitatearekin eta honetarako eredia deialdi honen eranskin gisa jarri da. Hitzarmen honen arabera, UPV/EHUK 18.750 euro emango dio entitateari hautatutakoa kontratatzekeo laguntza moduan.

12. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileei aplika dakiekeen indarreko araubideak ezarritakoarekin bat etorrira dagozkien eskubideak ukitu gabe, hautatutakoek eskubidea dute kasuan kasu hartuko duten enpresa edo entitateek beren ikasketak eta ikerkuntza programak burutzeko beharko luketen lankidetzeta eta sostengua eman diezaieten, tokian toki leudekeen baliabideen arabera.

13. oinarria. DEIALDIAN HAUTATUTAKO PERTSONEN BETEBEHARRAK

Langileei aplika dakiekeen indarreko arautegiak agindutako betebeharrak ezertan ere ukitu gabe, honako betebehar hauek dituzte deialdian hautatutako ikertzaileek:

13.1. Doktorego tesirako ikerketa proiektua egiteko adjudikatuko zaion entitatean lanean hasiko da lanaldi osoan, harekin sinatutako kontratua formalizatu ondoren.

13.2. Probetxua atera beharko diete prestakuntzako eta tesiko etapei, eta dagokien ikerkuntza proiektuan ere probetxuz parte hartu beharko dute.

13.3. Atxikitze sail edo institutuaren berezko funtzionamendu arauetara egokitu beharko du, dedikazioari, bete beharreko funtzioari, ordutegiari eta oporrei dagokienez.

13.4. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZ-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

13.5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinaraziko dio ukoa, bai eta helburuen lortzearen aurka jo edo eragotziko lukeen beste edozein gorabehera ere.

13.6. UPV/EHU eta doktorego tesirako ikerketa proiektua egingo dueneko entitatea aipatu beharko ditu, kontratuak dirauen bitartean, deialdi honen babesean, egingo liratekeen ikerketa jardueretatik ondorioztatuko liratekeen argitalpen eta bestelako emaitzetan.

13.7. Doktoregoa lortuko dute legezkiekeen doktorego arautegietan aurreikusitako epeen barruan.

13.8. Prestakuntzan ari den pertsonalak egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitortpen Titularitate hau entitate eta UPV/EHUren arteko hitzarmen batek arautuko du.

13.9. Kontratua sinatuta, errespetatu egin beharko dituzte deialdi honetan ezarritako arauak, bai eta, onuradunen lana gainbegiratze eta aztertze aldera Ikerkuntzaren arloko Errektoreordetzak eta entitateek eman diezazkieketen arauak ere.

14. oinarria. TESI ZUZENDARIKIDEEN BETEBEHARRAK

14.1. Tesi zuzendarikideen betebeharra izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, deialdi honen baitan formalizatutako kontratua indarrean den bitartean tesi zuzendarikide gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari eta entitateari jakinarazi beharko diete tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

14.2. IAE-ri jakinaraziko diote deialdi honen onura izan duen pertsonalak doktore gradua lortu duela.

14.3. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IAE-k eta entitateak edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

15. oinarria. PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEEN BETEBEHARRAK

Honako hauek dira parte hartzen duten entitateen konpromisoak:

- a) Doktoregaiak inskribatuta duen doktorego programaren barruan egin behar dituen prestakuntza jarduerak errespetatu eta erraztea.

- b) Zuzendarikide bat izendatuko dute, zein bere entitatean egin beharreko lana koordinatu eta orientatzeko erantzukizuna izango duena.
- c) Kontrataturako ikertzaileei behar duten laguntza eskaintzea eta beren doktorego tesirako ikerketa proiektua behar bezala egiteko behar dituzten baliabideak, tresnak edo ekipamenduak eskura jartzea.
- d) Laguntzaren probetxu egokia ziurtatuko luketen jarraipen lanak egin eta, Ikerketaren arloko errektoreordetzak xede horrekin eskatuko zaizkion txostenak bete.

16. oinarria. KONTRATUAREN UKOAK, BAJAK ETA AMAIERA

Deialdi honen bidez hautaturako pertsonalak egin litzakeen uko, baja eta gainerako gorabeheren berri eman beharko dio UPV/EHUren IAeri, tesi zuzendariaren ontzat emana, gertatu eta hiru lanegunetara, kasuan kasu justifikatzeko beharko litzatekeen agiriarekin batera. Eskaria entitatearen helbide elektronikora eta Ikerketaren arloko errektoreordetzaren rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikora igorritako idazkiaren bidez egingo da, kasuan kasu, eskatu eta aurkeztu beharreko dokumentazio justifikagarriarekin batera.

17. oinarria. JARRAIPENA

Deialdi honen babesean kontraturako pertsonalak laguntzaren baliatzeko beharko liratekeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, doktorego tesirako ikerketa proiektua egingo dueneko entitateak eta IAEk edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

Gainera, urtea amaitzerakoan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Lehenengo urtea: Konpromisorako dokumentua eta ikerketa proiektua, doktorego programan aurkeztutakoak.
- Bigarren urtea: Doktorego programaren azken balioespen positiboaren akta.
- Hirugarren urtea: Tesia inskribatuta duen doktorego programaren batzorde akademikoaren baimena, doktoregoko ikasketak urte batez luzatu ahal izateko.
- Entitatearen jarraipen batzordea, egindako ikerketa jarduerak zehaztuz.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorrira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2019ko maiatzaren 30ean.

José Luis Martín González
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrector de Investigación